# 2015. Urteko Txostena



LH TESTUINGURUAK 2015

IKASLAN BIZKAIA

PROIEKTUAK

KOMUNIKAZIOA

ikasLAN

Bizkaia

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarea

Red de centros públicos de Formación Profesional


BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación Profesional

Fp LANBIDE HEZIKETA




2015. urte amaieran onartu zuen Gobernu Kontseiluak Euskadiko Lanbide Heziketako Legearen proiektua, bereziki jasotzen duena "Lanbide Heziketaren IV. Euskal Planean" diseinatutako Lanbide Heziketa Sistemaren marko arauemailea, eta zeinen bidez ekin gura zaion prestakuntza mota honen transformazio estrategikoari, enpresek eta enpleguak Euskadin dauzkaten eskakizun berriei aurre egin ahal izateko.

Legea 33 artikuluk osatzen dute, denak ere bilduak atariko kapitulu batean eta ondoko beste bederatzi kapitulu, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, bi xedapen indargabetzaile eta beste bederatzi azken xedapenetan. Legearen kapitulu nagusien jardun gaiak dira:

- **1 Kap.** LHren Ereduo berria, Heziketa Integratua, Berrikuntza Aplikatua eta Ekintzailetza Aktiboa batera konbinatuko dituena.
- **2 Kap.** LHko ikastetxeek osaturiko Sare Nodo Espezializatuen eraketa sektore desberdinetan, enpresen beharrizanei berehalako erantzunak eman ahal izateko.
- **3 Kap.** LH Duala Ikas-Ekinezko Erregimenean.
- **4 Kap.** Lanbide Heziketaren Koordinazio Organo Goren bat sortzea, sail artekoa, eta zeini legokiokeen sail desberdinek garatutako estrategietan eragingo duten politika guztien koordinazioa lanbide heziketa kontuetan.
- **5 Kap.** Lanbide kualifikazio eta espezializazioen euskal esparrua.
- **6 Kap.** Euskal Lanbide Heziketaren nazioartekotzea.
- **7 Kap.** Eredu elebiduna eta hirueleduna, atzerriko hizkuntzak gehituz, eta ingelesari emanez lehentasuna hirugarren hizkuntza legez.
- **8 Kap.** Ikerketa lanbide heziketan, berrikuntzaren eta hobekuntza jarraituaren sustapena, hala zelan irakasleen prestakuntzarena.
- **9 Kap.** Euskadiko LHren sistemaren ebaluazioa.

# LH DUALA IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEAN

Enpresak eta Lanbide Heziketako ikastetxeek batera gauzatzen duten prestakuntza da. Hartara, enpresak bere profesionalak trebatu eta espezializatzeko aukera dauka, laneratze-prozesua optimizatze aldera. Halaber, ikasleak bere gaitasun teknikoak eta akademikoak garatzeaz gain, zeharkako gaitasunak ere indartzen ditu.

Ikastetxeek eta enpresa parte-hartzaileek ikaslea trebatzeko lana koordinatzen dute, profil profesionalen berezko gaitasunetan eta ikaslea kontratatua izan den alorrean.

Ikas-ekinezko Erregimeneko Heziketak jarraitzen du bere eboluzio positiboa. Azpimarratzekoa da modalitate honetan parte hartzen duen ikasle kopuruaren hazkuntza. % 46,51 hazi da 2015-2016 ikasturtean.

Kontratazioen proportzioak urtez urte jarraitzen du hazten Ikas-Ekinezko Erregimeneko Heziketa amaitzen dutenen artean. 2015-2016 ikasturtean heziketa modalitate hau bukatu zuten ikasleen % 77,19 kontratatu zituzten euren proiektua amaitzean, % 10,53 gehiago aurreko urtean baino, eta % 13,21 gehiago orain urte bi baino.

## Formazio Dual Txandakatuaren garapena EAEn




## Kontratazioen bilakaera Ikas-ekinezko Lanbide Heziketan



## MATRIKULAZIOEN BILAKAERA

2015-2016 urte akademikoan 16.376 matrikulazio izan ziren Bizkaiko lurralde historikoan eskaini ziren heziketa zikloetan guztira, 6.917 gradu ertaineko formazio zikloetan eta 9.459 goiko gradukoetan, zeintzuek denera 248 matrikulaturen hazkuntza esan gura duen aurreko ikasturte akademikokoen aldean.

Ikastetxe publikoek jarraitzen dute ikasle kopuru handiagoa hartzen, 8.915. Baina esan behar da, ikastegi publikoetako matrikulak ere zertxobait behera egin duela 2015-2016 ikasturtean, eta 34 pertsona gutxiago jaso dituela; beherakada hau batik bat goiko graduko heziketa zikloetan jazo da (74 matrikulazio gutxiago). Gradu ertaineko zikloetan ostera, 39 pertsona gehiago matrikulatu ziren.

Lanbide Heziketako matrikulazioen bilakaera Bizkaian. 2009-2016
Ikastetxe motaren (publikoa edo pribatua) eta graduaren arabera




Iturria: Eustat.

# MATRIKULAZIOAK PRESTAKUNTZA ARLOETAN

Bizkaian matrikulazio rankingean buru diren Lanbide Heziketako prestakuntza arloak dira ondokoak: Elektrizitatea eta Elektronika (1.933 matrikula), Osasungintza (1.634), Fabrikazio Mekanikoa (1.657), Administrazioa eta Kudeaketa (1.638) eta Gizarte eta Kultur Zerbitzuak (1.630).

Prestakuntza arlootan matrikulatutako pertsonen sexuari bagagozkie berriz, polarizazio argia antzematen da. Fabrikazio Mekaniko eta Elektrizitatea eta Elektronikako arloetan gizonezkoak diren bitartean gehiengoa, % 95,7 eta % 96,74 hurrenez hurren, Osasungintza eta Gizarte eta Kultur Zerbitzuetan berriz, andrazkoak dira nagusi, % 80,7 eta % 78,17 hurrenez hurren.

Bi sexuen arteko oreka handiena erakusten duten prestakuntza arloak dira berriz: Arte Grafikoak, emakumezkoen % 49,25 presentzia daukana, Merkataritza eta Marketina (% 53,5 emakumezko) eta Kimika, % 56,3 emakume dauzkana bere ikasgeletan.

.

## Lanbide Heziketako ikasleak Bizkaian. 2014-2015.

Sexua, arloa eta graduaren arabera




Iturria: Eustat.

# IKASLAN BIZKAIA, SARE PUBLIKOKO IKASTETXEAK

Ikaslan Bizkaia Bizkaiko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek osatzen duten irabazi asmorik gabeko elkartea da.

**Ikaslan Bizkaiaren ikastetxeak:**

2014-2015:

**24** Ikastetxe

**23** LHko ikastetxe

**1** Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe

2015-2016:

**23** Ikastetxe

**22** LHko ikastetxe

**1** Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe




**01** CIFP ZORNOTZA LHII
**02** IES BARRUTIALDE BHI
**03** IES (ITS) CONSTRUCCIÓN BIZKAIA (ITB) BHI
**04** CIFP NICOLAS LARBURU LHII
**05** CIFP BIDEBIETA LHII
**06** IES ESCUELA DE FP NAUTICO PESQUERA DE BERMEO • BERMEOKO NAUTIKA ETA ARRANTZAKO LH ESKOLA BHI
**07** CIFP ELORRIETA-ERREKA MARI LHII
**08** CIFP EMILIO CAMPUZANO LHII
**09** IES ESKURTZE BHI
**10** CIFP TXURDINAGA LHII
**11** IES ESCUELA AGRARIA DERIO • DERIO NEKAZARITZA ESKOLA BHI
**12** CPDE KIROLENE KIIP
**13** CIFP TARTANGA LHII
**14** IES (ITS) HOSTELERÍA/OSTALARITZA (ITB) BHI
**15** IES ANDRA MARI BHI
**16** CIFP FADURA LHII
**17** CIFP IURRETA LHII
**18** IES (ITS) ESCUELA DE HOSTELERÍA DE LEIOA (ITB) BHI
**19** IES LEKEITIO BHI
**20** IES MUNGIA BHI
**21** IES ONDARROA BHI
**22** CIFP REPELEGA LHII
**23** CIFP SAN JORGE LHII
**24** IES SATURNINO DE LA PEÑA BHI

## IKASLAN BIZKAIAREN GOBERNU ORGANOAK

Ikaslan Bizkaiaren eginbeharra da lurraldean Lanbide Heziketaren garapenari laguntzea, horretarako beharrezko kooperazioa erabiliz, tartean gertatzen diren eragile guztien arteko lankidetza sustatuz, ekimen eta proiektu berriak proposatuz, kudeatuz eta hauetan parte hartuz, azkenerako Bizkaiko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak behar legez kokatu ahal izateko, teknologia berrikuntzako, trebakuntzako eta nazioartekotze jokaleku berrietan.

Elkarteko gobernu organoak arduratuko dira aipatu ekimen eta proiektuak biltzen, aurkezten eta sustatzen, gero bertako bulego teknikoak kudeatu eta zuzendu ditzan.



## LANKIDETZAK IKASLAN BIZKAIA SAREAREKIN

Ikaslan Araba, Ikaslan Gipuzkoa eta Ikaslan Bizkaiaren arteko lankidetza faktore gakoa izan da euskal Lanbide Heziketa Publikoaren presentzia bultzatzeko orduan gizarte eta enpresa sare-ehuna osatzen duten agente desberdinen artean, hala EAE barruan zein honetatik kanpo ere.

### Lankidetzak Ikaslan Sarea 2015

| Ekimena | |
|---|---|
| Ikaslan II. Biltzarra | Bilbo, abenduak 10. "Etorkizunarekin bat" izenburu pean bildu zituen Ikaslanek Bilbon hainbat aditu teknologia, hezkuntza eta enpresaren arloetan, Juan Krisostomo Arriagakoaren Kontserbatorioko auditorioa beteko zuten 300 pertsona baino gehiagori ezagutzera emateko asmoz gaurko zein etorkizuneko profesionalen prestakuntza eta gaitasunak baldintzatuko dituzten errealitateak.<br>Azaldutako txostenez gain, Biltzarrak 3 tailer prestatu zituen, zeinetara hurbildu ahal izan ziren bertaratuak gure ingurunean daborduko abian dauden errealitate teknologikoetara, modu batera edo bestera, hemendik aurrera zalantza gabe eragingo duten teknologiak proposamen didaktiko berrien kudeaketan eta lanketan (Metaposta, Big Data eta MOOCak). Espainiako beste erkidego batzuetatik zetozenek zuzenean ezagutu ahal izan zuten Ikaslanen esperientzia "Elkartegintza Lanbide Heziketako ikastegietan" tailerrean, eta Biltzarraren aurreko egunean berriz, hainbat bisita egiteko abagunea eduki zuten gure berrikuntza gune eta entitate zenbaitetan. |
| Erasmus+ | Eraginkortasuna nazioartekotzan. |
| Laneki | Euskarazko materialgintza. |
| Durangoko Azoka | Txostena: Laneki-ren aurkezpena eta honen materialak. |

# LANKIDETZA INSTITUZIOEKIN

Administrazio Publikoarekin elkarlanean aritzeak gure jarduna eta proiektuak Euskadiko estrategia-ildoen bidetik doazela bermatzen du. Ikaslan Bizkaia ondoko erakundeekin hartu-emanetan dago etengabe: **Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzarekin, Eusko Jaurlari-tzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailarekin.**

Gainera, Administrazioek dinamizatzen dituzten eta enplegu, prestakuntza, ikaskuntza, gazteria, berrikuntza eta trebakuntza arloekin zerikusia duten sail eta erakunde guztiekin loturak ditugu: **Lanbide Heziketaren Euskal Kontseilua. LHEK, Gaztedi Foroa, Euskadiko Eskola Kontseilua, Laneki, Innobasque, Red Innovanet, Berritzeguneak eta BFA.**

## 2015ean instituzio publikoekin garatutako ekimenak

| Erakundea/Saila | Entitatea/Proiektua | Jokaeremua | Lankidetza modua |
|---|---|---|---|
| Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza | | Irakasleen prestakuntza | Prestakuntza ekintzen proposamena eta prestakuntza honi laguntzeko bideak, irakasleek beraiek proposaturiko beharrizanen arabera |
| | | Bitartekaritza administrazioarekin | Aldian behingo jarraipen bilerak |
| Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Saila. LHko Sailburuordetza | LANBIDE | Enplegagarritasunerako bitartekaritza | Aldian behingo jarraipen bilerak |
| | | Enplegurako prestakuntza | Heziketa ekimenak ikastetxeetan Hobetuzek eta Lanbidek subentzionatuak |
| | Enplegu estrategia 2020 | Enplegua | Diseinuan parte hartu |
| Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila | Euskadiko Eskola Kontseilua | | |
| Sailburuordetza + SEPIE | Nazioarteko proiektuak | Nazioartekotzea | Diru laguntzak mugikortasunerako |
| Bizkaiko Foru Aldundia | Nazioartekotzea | Hitzarmena | Diru laguntzak mugikortasunei |
| LANEKI | | Euskarako irakas-materialgintza. | Euskarako irakas-materialgintzaren beharrizan proposamenak |
| LHEK | | LH | Lan batzordeak |
| Innobasque | | Berrikuntza | Hitzarmena |
| Innovanet Sarea | | Lankidetza | Bazkideen arteko lan sareztatua bultzatu |
| Tknika | | LH | Informazio bilerak |
| Berritzeguneak | | LH publikoaren hedapena | Lan jardunaldiak |
| IVAC-EEI | | Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua. | Aldian behingo bilerak koordinaziorako eta jarraipenerako. |

# LANKIDETZA ENPRESA AGENTEEKIN

Enpresek merkatuaren errealitatea eta ekoizpen beharrak bertatik bertara ezagutzen dituztenez, gure ikasleak trebatzeko ahaleginak bideratzen laguntzen digute, etorkizunean erronka profesionalei aurre egiteko gaitasuna izan dezaten.

Enpresa-arloko eragileekin daukagun hartu-emana ondoko proiektuetan mamitzen da:

**Ikas-ekinezko Prestakuntza Duala.** Lanbide Heziketako titulu bat eskuratzeko aukera ematea helburu duen programa da. Bada, helburu hori lortzeko, ikaslearen ikasketa prozesua prestakuntza zentroaren eta enpresaren artean gauzatzen da. Ikastetxeek eta enpresa parte-hartzaileek ikaslea trebatzeko lana koordinatzen dute, profil profesionalen berezko gaitasunetan eta ikaslea kontratatua izan den alorrean.

**Lehen Aukera.** Lanbidek sustatzen duen programa, zeinen helburuak diren trantsizio esperientzia positiboa ahalbidetzea heziketa eremutik beharraren bizitza aktibora, eta euren heziketa formala osatu eta amaitu duten Lanbide Heziketako ikasleei laguntzea gaitasun profesional handiagoa bereganatzen, horretarako jabearaziz bakoitzaren profil profesionalari loturiko konpetentziekin erlazionatutako ezaguerez, trebetasun, abilezia eta jarrerez**.**

**Lantokiko Prestakuntza (LP).** Ikasleek lan-praktikak egiten dituzte gure ikastetxeekin kolaboratzen duten enpresetan. Helburua ikasleen prestakuntza profesionala osatzea da, eta, horretarako, jarduera profesionalak gauzatzen dituzte enpreson instalazioetan. Horrez gain, ikasleen lan-praktiken jarraipena eta tutoretza saioak egiten dira.

## Ekimenak enpresa agenteekin 2015

| Erakundea/Saila | Entitatea/Proiektua |
|---|---|
| Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea | Sentsibilizazio jardunaldia bi inguruneen arteko lankidetza sinergiak sortzen laguntzeko, ikerketan, eta enpresa ehunaren lehiakortasuna hobetzen duten produktuen garapenean. |
| Bilboko Portuko Agintaritza | Lankidetza hitzarmena goi graduko zikloetako 2 ikasturteko ikasleek euren gaitze profesionala osatu ahal izan dezaten Ikas-Ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko modalitatean. |

# LANKIDETZA BESTE HAINBAT AGENTEREKIN

## Hetel

HETEL gizarte ekimeneko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Elkartea da, eta kalitatezko Lanbide Heziketa baten alde egiten du Ikaslanekin batera.

Elkarlanean ari gara etengabe **Laneki** proiektua aurrera ateratzeko.

## Bestelako gizarte eragileak

Prestakuntza eta enpleguaren arloan gizarte eragileek sustatutako ekimen guztietan parte hartzen saiatzen da Ikaslan Bizkaia.

## Nazioartekoak

Europako Batasuneko eta beste zenbait herrialdeetako erakundeekin ditugun harremanei esker, prestakuntza, enpresa eta gizarte arloko bestelako errealitateekin loturak eta itunak mamitzeko aukera izan dugu; esperientzia, baliabide eta pertsonen trukea posible egiten dituzten nazioarteko proiektuak garatzeko bidea eman diguna.

### Ekimenak Hetel-ekin 2015

| Ekimena |
|---|
| Bilerak LHren hobetzeko. |

### Ekimenak beste gizarte agenterekin 2015

| Agentea | Ekimena |
|---|---|
| Emakunde | Parte-hartzea Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroan, Ikaslan Bizkaiaren “Emakumeak ere” ale berezia argitaratuz, eta Twitterreko “LA MUJER TAMBIEN EN / EMAKUMEAK ERE” kanpaina eraginez, eta “#EmakumeakEre” traola osatzea proposatuz emakumezkoen ikusgarritasuna indartzeko, eta hauen presentzia handiagoa eskatzeko gure gizarteko esparru guztietan, izan hauek heziketarenak, profesionalak, kulturalak edo kiroletakoak. |
| Euskadiko Odol Emaileen Federazioa | Lankidetza hitzarmena odola emateko eta ekimen bera sustatzeko Ikaslan sarean biltzen garen Lanbide Heziketako ikastetxeen barruan. |

La FP en 2015
2015 testuingurua
LH Duala Ikas-Ekinezko Erregimenean
Matrikulazioen bilakaera
Matrikulazioak prestakuntza arloka

Ikaslan Bizkaia
Sare publikoko ikastetxeak
Gobernu organoa
Lankidetzak
Hezkuntza eskaintza
Lan Heziketa
Kirol Irakaskuntzak

Proiektuak
Barnekoak
Enplegagarritasuna
Ekintzailetza
Mugikortasuna
Irakaskuntza materiala

Komunikazioa
Kanalak eta euskarriak
Jardunaldiak eta ekitaldiak

# HEZIKETA ESKAINTZA: LANBIDE HEZIKETA

**2014-2015:** **84** LHko titulazio — 34 Erdi mailia, 50 Goi maila

**2015-2016:** **82** LHko titulazio — 31 Erdi mailia, 51 Goi maila

| | | |
|---|---|---|
| Jarduera Fisikoak eta Kirolak | Natur ingurunean gorputz- eta kirol-elintzen gidaketa | 2014-2015 |
| | Gorputz-eta kirol-ekintzen sustapena | 2014-2016 |
| Administrazioa eta Kudeaketa | Gestión administrativa | 2014-2016 |
| | Administrazioa eta finantzak<br>Zuzendaritzari laguntza ematea | 2014-2016 |
| Nekazaritza | Basoa eta natura-ingurunea kudeatzea<br>Nekazaritza ekologikoa | 2014-2016 |
| | Basoa eta natura-ingurunea kudeatzea<br>Paisajismoa eta landa-ingurunea | 2014-2016 |
| Arte Grafikoak | Aurreinprimaketa digitala<br>Inprimaketa grafikoa | 2014-2016 |
| | Argitalpen inprimatuen eta multimedia-argitalpenen diseinu eta edizioa<br>Produkzio grafikoaren diseinu eta kudeaketa | 2014-2016 |
| Merkataritza eta Marketina | Merkataritza jarduerak | 2014-2016 |
| | Nazioarteko merkataritza<br>Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeaketa<br>Garraio eta logistika | 2014-2016 |
| Eraikuntza eta Obra Zibila | Barnealdeetako, dekorazioko eta birgaitzeko obrak<br>Eraikuntza | 2014-2016 |
| | Obra zibileko proiektuak<br>Erainkuntza proiektuak<br>Obren eta planen burutzapena | 2014-2016 |
| Elektrizitatea eta Elektronika | kontsumorako ekipo elektronikoak | 2014-2015 |
| | Instalazio elektriko eta automatikoak<br>Telekomunikazio instalazioak | 2014-2016 |
| | Mantentze-lan elektronikoa<br>Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak<br>Automatizazioa eta robotika industriala<br>Telekomunikazio- eta informatika- sistemak | 2014-2016 |
| Energia eta Ura | Energi-eraginkoratasuna eta eguzki-energia | 2014-2016 |

| | | |
|---|---|---|
| Fabrikazio Mekanikoa | Mekanizazioa<br>Soldadura eta galdaragintza | 2014-2016 |
| | Metal eraikuntzak<br>Fabrikazio mekanikoko diseinua<br>Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa | 2014-2016 |
| Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta gastronomia<br>Jatetxe arloko zerbitzuak | 2014-2016 |
| | Bidaia agentzietako eta ospakizunen kudeaketa<br>Turismo gidaritza, informazioa eta laguntza<br>Sukalde zuzendaritza<br>Jatetxe arloko zerbitzuen zuzendaritza | 2014-2016 |
| Irudi Pertsonala | Ile-apainketa eta -kosmetika<br>Estetika eta edergintza | 2014-2016 |
| | Estetika integrala eta ongizatea<br>Ile-apainketako estilismoa eta zuzendaritza<br>Karakterizazio eta makillaje profesionala | 2014-2016 |
| Irudi eta Soinua | Irudi laborategia | 2014-2015 |
| | Ikus-entzuneko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa<br>Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua<br>3D animazioak, jokoak eta multimedia elkarreragileak | 2014-2016 |
| Elikagaien Industriak | Okintza, gozogintza eta konfiteria | 2014-2016 |
| Informatika eta Komunikazioak | Mikroinformatika-sistemak eta sareak | 2014-2016 |
| | Sare-informatika sistemen administrazioa<br>Web-aplikazioen garapena<br>Plataforma anitzeko aplikazioen garapena | 2014-2016 |
| Instalatze eta mantentze lanak | Mantentze-lan elektromekanikoa<br>Beroa sortzeko instalazioak<br>Hozteko eta girotzeko instalazioak | 2014-2016 |
| | Instalazio termiko eta fluidodunen proiektuen garapena<br>Mekatronika industriala<br>Instalazio termiko eta fluidodunen mantenimendua | 2014-2016 |
| | Laneko arriskuen prebentzioa | 2015-2016 |

| | | |
|---|---|---|
| Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Instalazioa eta altzari-hornikuntza | 2014-2016 |
| Itsasoa eta Arrantza | Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzea eta kontrolatzea<br>Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza | 2014-2016 |
| | Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzeko lanak antolatzea | 2014-2016 |
| Kimika | Laborategiko eragiketak | 2014-2016 |
| | Analisiko eta kalitate kontroleko laborategia<br>Ingurugiro-kimika | 2014-2016 |
| Osasungintza | Erizaintzaren laguntza<br>Osasun-larrialdiak | 2014-2016 |
| | Osasun dokumentazioa eta administrazioa<br>Ahoaren eta hortzen higienea<br>Diagnosi klinikoen laborategia<br>Ingurugiro-osasuna<br>Dietetika | 2014-2016 |
| Gizarte eta Kultur Zerbitzuak | Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta | 2014-2016 |
| | Animazio soziokulturala eta turistikoa<br>Haur hezkuntza<br>Gizarteratzea | 2014-2016 |
| Ehungintza, Jantzigintza eta larrugintza | Patroigintza eta moda | 2014-2016 |
| Transporte y Mantenimiento de Vehículos | Karrozeria<br>Ibilgailu automobilen elektromekanika<br>Makineriako elektromekanika | 2014-2016 |
| | Automozioa | 2014-2016 |

# HEZIKETA ESKAINTZA: KIROL IRAKASKUNTZAK

2015-2016

**23** Kirol Irakaskuntzako titulazio
12 Erdi mailia
11 Grado superior

## PLAN LOGSE

| | |
|---|---|
| Saskibaloia | Saskibaloia |
| | Saskibaloia |
| Balonmano | Balonmano |
| | Balonmano |
| Neguko Kirolak | Eski Alpetarra |
| | Iraupen Eskia |
| | Snowboard |
| | Eski Alpetarra |
| | Iraupen Eskia |
| | Snowboard |
| Mendi Kirolak Eta Eskalada | Goi Mendia |
| | Sakanak |
| | Eskalada |
| | Mendi Ertaina |
| | Goi Mendia |
| | Eskalada |
| | Mendiko Eskia |
| Futbola | Futbola |
| | Areto Futbola |
| | Futbola |
| | Areto Futbola |

## PLAN LOE

| | |
|---|---|
| Atletismoa | Atletismoa |
| | Atletismoa |

## BARNE PROIEKTUAK

Ikaslan Bizkaiak lanean dihardu bere eta bere sarearen parte diren ikastetxe guztien ekinbideen etengabeko hobekuntza bila, eta horretarako hainbat proiektu eta ekimeni helduz, oro har, kudeaketaren optimizazioa ekarri lezaketenak, eta bertako profesionalen gaitasunen hobekuntza, gure ikastetxeetako ikasleendako zerbitzu berrien eskaintza aukera, hala zelan gure herritar guztiei ere, etab.

## Barne proiektuak Ikaslan Bizkaia 2015

| Proiektua | Azalpena |
|---|---|
| Metaposta | Metabox zerbitzuaren ezarpena, Interneteko kutxa gotorra, zeinetan erabateko segurtasunez biltegiratu ahal izango dituzten ikastetxeek zein ikasleek balio handiko dokumentuak, zeintzuek, aldi berean, digitalki sinatuak baldin badaude, legezko baliotasuna daukaten administrazio publikoaren eremuan. |
| Arautu bako heziketaren arduradunendako prestakuntza | Prestakuntza jardueren garapena ikastetxeetako EP arduradunei zuzendua, Ikaslanek bultzatu eta antolatuak eta LHren Zuzendaritzaren laguntzaz. |
| Ikaskuntza Bitartekarien sarea abiatu | Zerbitzuak aholkularitza eskaintzen die hiritarrei Bizkaiko udalerrietan eskaintzen diren heziketa jardueren inguruan. Ikaslan Bizkaia sareko 11 ikastetxek eskaintzen dute zerbitzua. |
| ITAI | Onlineko tresnaren garapena, aukera ematen duena Euskadiko LHko ikastetxe publikoetan eskaintzen diren Lanbide Heziketako ziklo guztietako plaza libreen kopurua ezagutzeko zein hauetarako ebakera nota. |
| Irakasleen ikastetxe arteko prestakuntza | Koordinazioa, sareko irakasleen formazio beharrizan komunak ezagutzeko, eta erabakitako formazio ekimenen gertatzea. |
| I. IkasTxapelketa | Ikaslan Bizkaiako ikastetxe arteko txapelketa bikoteka palan eta esku pilotan. Kirol eta jarduera fisikoko ekimenen sustatzea zein Ikaslan Bizkaiako sarearen parte garen pertsonen arteko erlazioak ere. |
| Odol emate kanpaina | Sarearen 11 zentrok hartu du parte bi fase dauzkan ekimen honetan: sentsibilizazioa eta odol ematea ikastetxeetan. Kanpaina, Euskadiko Odol Emaileen Federazioaren eta Ikaslanen artean sinaturiko hitzarmenaren ondorioa da, gizarte hobekuntzan laguntzeko gure asmoen artean. |

## ENPLEGAGARRITASUNA

Elkartearen jarduera-ildoen oinarri nagusietako bat ikasleen lan aukerak hobetzea da. Helburu hori lortzeko, bada, erakundeek sustatzen dituzten ekimenetan parte hartzen dugu eta horien ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna hobetzen saiatzen gara, lan merkaturako baliagarriak diren gaitasunak eta esperientzia profesionalak eskuratzeko dinamikak garatuz.

**Instituzioek bultzatutako programak:**

**Ikas-ekinezko Prestakuntza Duala.**

Enpresaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko prestakuntza partekatua sustatzen duen programa.

**Lehen Aukera.**

Programa honi esker, prestakuntza akademikoa burutu duten Lanbide Heziketako ikasleei euren lehen esperientzia profesionala eskaintzen zaie (3 hilabetekoa).

**kaslan Bizkaiaren ekimenak:**

**Esperientzia profesionalak gure ikastetxeetako ikasleekin.** Ekimen honek gure ikastetxeen arteko lankidetza proiektuak bultzatzen ditu, ikasleek euren espezialitatearekin lotutako produktuak edo zerbitzuak garatu ditzaten, eta gero, enpresabezeroa dinamikaren baitan merkaturatu daitezen.

**iTAi**

2014-2015 ikasturte akademikoan zehar garatzen da ITAI (Ikasleen Tratamendurako Aplikazio Informatikoa). Oso-osorik Zornotza LHIlko Web Aplikazioen Garapeneko zikloko ikasleek sortua. Tresnak aukera zuzena ematen du Lanbide Heziketako zikloetako plaza libreen kopurua zein hauen ebakera nota ezagutzeko.

Ikas-Ekinezko Heziketa Duala 2015-2016:
Bizkaia




Ikaslan Bizkaiako ikasleak Lehen Aukera programan. 2015-2016:



**60**
Ikasle

# EKINTZAILETZA

## Urratsbat

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak sustatutako eta TKNIKAk koordinatutako programa da, Lanbide Heziketako ikasleei euren enpresa propioa sortzen laguntzeko helburua duena.

Programak Lanbide Heziketako ikastetxeetako baliabide pertsonalak eta materialak Lanbide Heziketako ikasleen eskura jartzen ditu, zentroak enpresen haztegi eta inkubagailuak izan daitezen.

2015-2016 ikasturtean landutako proiektuen kopurua ia bikoitza da 2014-2015 ikasturtean landu zirenen aldean (% 47 gehiago).

Ikaslan Bizkaiako ikastetxeek garaturiko Urratsbat proiektuak:

**2014-2015:**

**12** Zentro

**68** Proiektu landu dira

**37** Enpresa sortu dira

**2015-2016:**

**14** Zentro

**129** Proiektu landu dira

Empresdas creadas

| Enpresa | Ikastetxea |
|---|---|
| Guarderia Kulunkatu | ADEI |
| Innovandini S.L. | HAMAKING |
| REGALA CANCIONES | UR DESARROLLOS-ARRATEK |
| DCMGDECORO CON MUCHO GUSTO | VICTOR ORTEGA MARTINEZ |
| MARTA DE LA IGLESIA | ZIUR TELEASISTENTZIA |
| Kiroltek Coaching&Trainning | HOLAMOBI |
| KAIENE | WESER PRODUCTIONS |
| Proyecto FIT CLUB | JOAR GARCIA DE GALDEANO |
| EITUA MOTOR | soinuARTean |
| AKUDE | Ikastravelling |
| GESHOR | i-Sare |
| Deporfut | AMANE |
| Educ-arte | FERRA-LA HERRADURA |
| Kareaga 79 | Nestor Peña Henales |
| Bioconstrucción Zurita | Hermaion |
| Profesora de Danza Ana María Peral | Barnetik |
| TEKNOMARKETING | BIXOK |
| AZERI Elkarte Txikia S. Coop | Telkon Kooperatiba Txikia |
| Eriz Delgado - Educación | |

# EKINTZAILETZA

**IkasEnpresa**

Lanbide Heziketaren ekintzailetza espiritua garatze aldera, Industria Sailarekin lankidetzan garatutako hezkuntza-programa.

Tresna pedagogiko hau enpresa esperientzia bat egitean datza. Hau da, ikasleak eskualde-arteko merkataritza jarduera bat gara-tzen duen enpresa bat sortu eta kudeatu behar du. Gero, enpresa horietako bakoitzari metodologia bera garatzen duen beste eskualde bateko enpresa bat esleitzen zaio. Orduan, bi enpresek harreman komertzial bat abiarazten dute: produktuen katalogoa partekatu, eskaerak negoziatu, produktuak esportatu eta inportatu eta, azkenik, eskuratutako produktuak merkaturatzen dituzte.

## IV. Ikasenpresa Feria




Eibar, 2015eko otsailaren 5a.

Ikasenpresa Feriak parte hartzaile gehiago irabazi ditu eta 700 ikasletik gora bildu Eibarren 46 ikastetxetatik helduak.

## Enpresa esperientziak IkasEnpresa 2014-2015

| Ikastetxea | Enpresa | Bazkideak |
|---|---|---|
| CIFP ELORRIETA-ERREKA MARI LHII | BIRZILAT, SL | 9 |
| | Teensoft | 6 |
| | Manem | 6 |
| | Tips & Systems | 5 |
| CIFP FADURA LHII | A.F.E. | 5 |
| | NanoMedical | 5 |
| | MOTOSHOPPING | 7 |
| | Eguzcover | 5 |
| | Olgetan Gabiz | 5 |
| | MUSARTE | 5 |
| | Irribarre Fadura | 5 |
| | Txikifarre | 5 |
| CIFP REPELEGA LHII | Market Carts | 5 |
| | PERRETXIKO | 5 |
| CIFP TARTANGA LHII | Dioncooperativa | 8 |
| | Pinamelon | 8 |
| | ¿Y Qué Más? | 7 |
| | Skanti Visuals S. Coop. | 7 |
| | BROTHERSOUND.S.Coop. | 7 |
| | PineMelon S.COP | 5 |
| | TEKAM SOLUTION | 5 |
| | Compartiendo una ilusión | 6 |
| | Zergatik ez?S.Coop | 5 |
| | DENOK BATERA | 6 |
| | BIPKO S.Coop | 5 |
| | ASDROBI S.Koop. | 5 |
| | Asketxe S.COOP | 5 |

| Ikastetxea | Enpresa | Bazkideak |
|---|---|---|
| IES (ITS) HOSTELERIA/ OSTALARITZA (ITB) BHI | Quien se pica bollos come | 7 |
| | Los mundos de Panpas | 7 |
| CIFP TXURDINAGA LHII | Herbachifaa | 7 |
| | Formascrin | 7 |
| | IN.AH | 4 |
| | Hezkunsare | 7 |
| | Empresa de Gafas Personalizadas (EGP) | 10 |
| | LoreTek | 7 |
| | Memory charge | 6 |
| IES (ITS) ESCUELA DE HOSTELERIA DE LEIOA (ITB) BHI | Buen Bollito | 7 |
| | | 7 |
| | On Egin | 7 |
| | | 9 |
| | Gastro-Magic, S, COOP. | 10 |
| | A.D.I. | 6 |
| | dc2b SL | 7 |
| IES MUNGIA BHI | Mekatran | 4 |

**8** Zentro

**44** Proiektu landu dira

# MUGIKORTASUNA

Nazioarteko mugikortasuna funtsezkoa da balio erantsiko gaitasunak gure ikasle zein irakasleen eskura jartzeko. Izan ere, beste herrialde eta kultura batzuk ezagutzea bertako hizkuntzan murgiltzea baino askoz gehiago da; esate baterako, irakaskuntza eta lan metodo berriak ezagutzea.

Europako proiektuetan parte hartzeko ikastetxe, irakasle eta ikasleen eskaerari erantzuna emateko sortu zen IKASLANen mugikortasun proiektua.

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek bi bide erabiltzen dituzte Lantokiko Prestakuntza (LP) Europan egiteko: Ikaslanek hiru probintzietarako kudeatzen dituen bekak eta ikastetxeak berak kudeatzen dituenak.

## Ikaslaneko irakasleen mugikortasuna

**2014-2015:**

7 Irakasle

| | |
|---|---|
| Alemania: | 2 |
| Austria: | 1 |
| Finlandia: | 1 |
| Italia: | 2 |
| Portugal: | 1 |

**2015-2016:**

20 Irakasle

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alemania: | 1 | Herbehereak: | 1 |
| Danimarka: | 3 | Polonia: | 5 |
| Finlandia: | 4 | Suedia: | 3 |
| Hungaria: | 1 | Turkia: | 1 |
| Italia: | 1 | | |

**Programa VETPRO:**

**2014-2015:**

75 Irakasle

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alemania: | 5 | Finlandia: | 10 |
| Austria: | 19 | Frantzia: | 5 |
| Txipre: | 8 | Norvegia: | 5 |
| Estonia: | 8 | Erresuma Batua: | 15 |

**2015-2016:**

Proiekturik ez

## Ikaslaneko ikasleen mugikortasuna







## IRAKASKUNTZA MATERIALA

Irakaskuntza materialak eguneratuta eta arlo profesional bakoitzaren errealitatera egokituta egon behar du ezinbestean, ikasleen trebakuntzan arrakasta izateko eta Euskal Lanbide Heziketa Publikoa nola edo hala bereizteko.

### LANEKI

Ikaslan Araba, Ikaslan Bizkaia, Ikaslan Gipuzkoa eta Hetel-ek sortutako programa, euskarazko ikasmaterialak ikastetxeen eskura jartzeko helburuarekin, hauek Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetan erabili ahal izan dezaten.

Ekimen honen bitartez, kalitatezko lanabes bereziak eskaini gura zaizkio Euskadiko Lanbide Heziketan parte den ikasleria euskal hiztun guztiari, eta horrela lagundu ere bai gure gizartearen hizkuntza normalizazioan.

Argitaraturiko material guztia dabordukо doan da eskuragarri webgune honetan:

www.jakinbai.eus

## 2015an sortutako euskarazko ikasmateriala

**Laneki-k sortua**

| Materiala | Familia |
|---|---|
| FITOPATOLOGIA | Nekazaritza |
| INDUSTRIA KOMUNIKAZIOAK | Elektrizitatea eta Elektronika |
| HARREMAN PUBLIKORAKO PROTOKOLOA | Ostalaritza eta Turismoa |
| MARKATZEKO LENGOAIAK ETA INFORMAZIOA KUDE. SIST. | Informatika eta Komunikazioak |
| ESKU HARTZE SOZIALAREN METODOLOGIA | Gizarte eta Kultur Zerbitzuak |
| HEZKUNTZAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA | |
| ANIMACION Y GESTIÓN CULTURAL | |
| OINARRIZKO ERAGIKETAK KIMIKA INDUSTRIALEAN 3-4 UD | Kímica |
| METAL ERAIKUNTZEAN EBAKETA PROZESUAK UF 1622 | Fabrikazio Mekanikoa |
| ZURGINTZA HIZTEGIA DIGITALIZATZEA | Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa |
| HIZTEGIAREN INPLEMENTAZIOA | Hizt-Tek |

**Irakasleen ekoizpena**

| Material | Familia |
|---|---|
| EHIZAREN KUDEAKETA | Nekazaritza |
| ARRANTZA KONTINENTALA | |
| HASIERAKO OSASUN_LAHGUNTZA_ ASISE | Osasungintza |
| OSASUN_LAGUNTZA BEREZIA ASESE | |
| BULEGO_INFORMAT_CAMTA | Informatika Eta Komunikazioak |
| ACCES-WORD-EXCEL AURRERATUA | |
| ITELELAGUNTZA 1-6 UD | Gizarte eta Kultur Zerbitzuak |
| AISIALDIKO JARDUERAK | |
| LAGUNTZA PSIKOSOZIALA | |

**R400 programa**

| Materiala | Familia |
|---|---|
| AUDIO INSTALAZIOA | Elektrizitatea eta Elektronika |
| “ARDUINO-PRAKTIKAK ELEKTRONIKA-TAILERRERAKO” | |
| ILEAREN ANALISIA | Irudi Pertsonala |
| GAINAZALA TXUKUNTZEA 1/3 | |
| ASTERISK KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA” | Informatika eta Komunikazioak |
| PROGRAMAZIOA JAVAN | |
| GASTRONOMIA ETA NUTRIZIOA | Ostalaritza eta Turismoa |
| LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA” ARIKETAK | |
| ERAIKINEN ZIURTAPEN ENERGETIKOA | Energia eta Ura |
| ERRADIOLOGIA-ANATOMIA | Osasungintza |
| SOLID EDGE ST5 LANBIDE HEZIKETAN | Fabrikazio Mekanikoa |
| MARKETIN DIGITALA’ | Administrazioa eta Kudeaketa |
| GIZARTEAN PARTE HARTZEKO METODOLOGIA. | Gizarte eta Kultur Zerbitzuak |

## KOMUNIKAZIOA

Elkartetik zabaltzen dugu Lanbide Heziketaren presentzia gizartean, eta geure erakundearena ere, onlineko espazioen bitartez, idatzizko kanal eta euskarrien bidez, eta hainbat jardunaldi eta ekitaldietan bertaratuz eta parte hartuz.

**Kanalak eta euskarriak:**

- Memoria 2014: Gure Elkartearen bilakabidearen gaineko txostena 2014an urtean zehar; bertan jasotzen ditu gure barneko egitura, gure kolaboratzaile sarea, buruturiko proiektuak, komunikazioak, etab..
- Hezkuntza Eskaintza Aldizkaria. 2014-2015: Bizkaiko Lanbide Heziketako ikastetxeen Heziketa eskaintzaren katalogoa, kasuan kasu zehazturik, Ikaslan Bizkaian elkarturiko ikastetxe bakoitzean jaso litezkeen heziketa arloak, eskaintza motak, zentroak, zikloak, etab..
- Hobetuz eta Lanbideren Ikastaroen Katalogoa: Lanbidek eta Hobetuzek bultzatzen dituzten heziketa ekimenen katalogoa. Ikastetxe eta Heziketa arloka emana, ikastaroen garai eta iraupenak zehaztuz.
- Ikaslan Webgunea: Elkartearen lineako egoitza korporatiboa, Elkartearen gaineko informazio eguneratu guztia emanez, gure ikastetxeetakoa eta oro har Lanbide Heziketarekin zerikusia daukan guztiaz.
- Ikaslan Bizkaia buletin digitala: Ikaslan Bizkaiaren hiruna hileko Newsletter-a. 3 ale. Lanbide Heziketaren eremuko jazoera eta datu esanguratsuenen inguruan informatzeaz gain jasotzen ditu buletinak ikasle eta ikastetxeen esperientziak hauek aurrera daroatzaten proiektuetan, eta berrikuntzarekin, enplegagarritasunarekin, ekintzailetza eta abarrekin duten zerikusia.
- Sare sozialak: Ikaslan Bizkaiak denak darabiltza, Facebook, Twitter, Slideshare, Youtube, Pinterest eta Linkedin, asmoz profil eta audientzia guztietara iristea.

### Ikaslan Bizkaiaren komunikazio kanalen datuak

| Kanala/Euskarriak | Datuak |
|---|---|
| Ikaslan Bizkaia buletina | 2015eko urtarrileko buletinean nabarmenak ziren Eder Aurre, CREAMODA 2014ko saridunari eginiko elkarrizketa eta TARTANGA LHIlari emaniko Espainiako Ingurumen eta Eutsigarritasunaren Kudeaketako Nazio Saria. Apirilekoak bereziki jaso zuen gure ikastetxeetako ordezkarien esperientzia 2015eko Spainskills-etan. Eta azkenik iraileko zenbakian, "Etorkizunarekin bat" Ikaslanen II. Biltzarrean jazorikoak jasotzeaz gain, ezagutu ahal izan genituen Repsol Fundazioak gure ikastetxeen artean bere berrikuntza energetiko aplikatuko proposamenak garatzeko aukeratu zituen 2 proiektuetako taldeak: ("DISCAP" eta "Eraginkortasuna eta aurrezkia hornikuntza bideetan").<br>Buletinak 595 harpidedun dauzka eta zabaltze portzentaje altua: % 36,65ekoa batez beste. |
| Webgunea | Erabiltzaile kopurua 55.574koa izan da, aurreko urtekoa baino % 10,53 gehiago. Ikusitako orrialde kopurua ere % 7,13 hazi da.<br>Bisita gehien jaso duen informazioa, berriz, izan da: heziketa zikloei eta hezkuntza eskaintzari buruz diharduena. Bisiten % 29,3 errepikatu egiten da, eta gainetiko % 70,7a ostera, bisita berriak dira.<br>Smartphone bidezko sarbideak ere gorantz jarraitzen du webgunean. |
| Twitter | 2015ean zehar 420 tweet bidali dira 91500eko inpresioz eta % 7,6ko interakzio portzentajez. |
| Facebook | 317 "me gusta" en 2015 con un alcance medio de 230 personas. |
| Linkedin | 1.855 kontaktu. |
| Youtube | 1.001 bistaratze Ikaslan Bizkaia kanalaren bideoetan. |
| Slideshare | 1.280 bistaratze, zeinen artean ikusiena Prestakuntza Eskaintza 2015-2016 aldizkaria, 505 bistaratze eduki dituena. |

## Jardunaldi, ekitaldi eta kanpaina, Ikaslan Bizkaiak, Ikaslanek edo sareko ikastetxeek antolatuak. 2015

| Ekimenak | Helburua/azalpena |
|---|---|
| "Etorkizunarekin bat" Ikaslanen II. Biltzarra | Bilbo, 2015eko abenduaren 9 eta 10. Espainiako lurralde guztietatik heldutako 300 pertsona baino gehiago, adituen eskutik ezagutu guran etorkizuneko profesionalen gaitzea eta prestakuntza baldintzatuko dituzten errealitateak.<br>Visiting: Lanbide Heziketarekin zerikusi daukaten beste erkidego batzuetako pertsonek zuzenean ezagutu ahal izan zuten euskal LHren errealitatea eta hainbat berrikuntza gune eta entitateak bisitatu.<br>Txostenak eta txostengileak:<br>ENRIQUE DE LA RICA. ESEUNE Business School-eko Zuzendari Bilbon eta Tianjin-en. Aditua Berrikuntzan eta Ekintzailetzan. "Berrikuntza-Heziketa: nola prestatu pertsonak, ezaugarri, aldakuntza duen inguru baterako".<br>GORKA PALAZIO. Ikus-entzunezko Teknologien katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), aditua heziketa IKTetan, MOOC plataformetan eta datu analisian. "Formazioa Big Data-ren garaian eta ikaskuntza sarean (online)".<br>BORHENE CHAKROUN, UNESCOko hezkuntza aditua. "Hezkuntzaren garapena mundu mailan."<br>JORGE AREVALO, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Sailburuordea. "Norbere burua berrasmatzearen jenialtasuna."<br>TAILERRAK: Metaposta, Big Data eta MOOCak. Beste erkidegoetatik zetozenek zuzenean ezagutu ahal izan zuten Ikaslanen esperientzia "Elkartegintza Lanbide Heziketako ikastegietan" tailerrean. |
| I. IkasTxapelketa | Ikaslan Bizkaiako ikastetxe arteko txapelketa bikoteka palan eta esku pilotan. 2015eko bigarren seihilekoa. Harremanak estutu Ikaslan Bizkaiako sarea osatzen dugun ikastetxe desberdinetako ikasle, irakasle eta gainetiko enplegatuen artean. |
| Berritzeguneak | 2015eko urtarrilaren 16a. TKNIKA . Euskal LH publikoaren, zein jardunbide egokien, zabalkunde jardunaldia. |
| Parke Teknologikoak | Urtarrilak 29. Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa (Zamudio). Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak eta Ikaslanek antolaturiko jardunaldia bi inguruneen arteko lankidetza sinergiak sortzen laguntzeko, ikerketan, eta enpresa ehunaren lehiakortasuna hobetzen duten produktuen garapenean. |
| "Emakumeak Ere..." kanpaina | 2015ek azaroa. Gizarte osoa Twitter eta Facebook bidez mezuak bidaltzen gonbidatzen zuen kanpaina “#LaMujerTambienEn” edo “#EmakumeakEre” traola osatuz emakumezkoen ikusgarritasuna indartzeko, eta hauen presentzia handiagoa eskatzeko gure gizarteko esparru guztietan, izan hauek heziketarenak, profesionalak, kulturalak edo kiroletakoak. |
| LHren astea | Maiatzaren 6tik 17ra. Lanbide Heziketako ikastetxeek antolatutako jarduerak LHko zentroen beraien inguruan. Ekimenean Euskadi osoko 50 ikastetxe inguruk hartu zuen parte, LHa gizartera hurbiltzeko asmoz, eta kaleari erakundeon egunez egunekoa ere erakutsi guran. |

## Beste hainbat agentek bultzaturiko ekimenak. 2015

| Ekimenak | Helburua/azalpena |
|---|---|
| **Parte hartzea** | |
| Kataluniako Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordea | Otsailak 12. Bideokonferentzia. Txostengileak, Kataluniako LHren legearen eztabaidarako. |
| El Correo-ren III. Prestakuntza Aretoa | Maiatzaren 8 eta 9a. Bilbo. LHko heziketa eskaintzaren aurkezpena. |
| NAGUSI Feria | Urriaren 16tik 18ra. Ikasle eta irakasleen parte hartzea, pertsona helduen bizi kalitatea hobetzea asmo duen ferian. |
| Durangoko Azoka | Abenduak 5-8. Durango. Laneki-k argitaraturiko hezkuntza materialaren aurkezpena. |
| **Bertaratuak** | |
| Energia eta Ekintzailetza, II. Jardunaldi, Topaketa eta Debatea | Azaroa. Repelega LHIIn (Portugaleten). Repsol Fundazioak, Petronorrek eta BEAZek antolatzen dute `II. Energia eta Ekintzailetza Jardunaldia´, eta eztabaida eta ideia trukerako espazioa sortzen, ekosistema ekintzaileko agente desberdinen arterako. |
| LH. Euskadi Ekinean: UP proiektu berria | Azaroak 4. SPRIren UP Euskadi, Euskal Ekintzailetza Sistema, programa berriaren hedapen jardunaldia. |
| BIME RECRUTING | Industria sortzaileen enplegu foroa. |